



Arartekoaren 2020R-63-2020 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari gomendatzen zaio berriaz ebazteko ontziak sailkatzeko Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) instalazioan kudeatutako hondakinen datuei buruzko ingurumen informazioa eskuratzeko eskaria.

Aurrekariak

- Pertsona batek Arartekoan aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak Garbiker sozietate publikoaren bitartez emandako erantzuna, ontziak sailkatzeko Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) instalazioan 2018an kudeatutako hondakinen datuei buruzko ingurumen informazioa eskuratzeko eskariari buruzkoa.

Kexa idazkiaren arabera, 2019ko maiatzaren 8an, interesdunak informazioa eskuratzeko eskaera egin zuen Bizkaiko Foru Aldundian. Zehazki, hauei buruzko informazioa eskatu zuen: *"2018an ontziak sailkatzeko Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) instalaziotik atera ziren hondakinen kopurua, horien helburua eta LER kodea"*. Eskaria Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio publikoko plataformaren bitartez gauzatu zuen.

Kexagileak esan zuen erantzun bakarra jaso zuela, hain zuzen ere 2019ko maiatzaren 20an Garbiker enpresa publikoko zuzendari kudeatzaileak idatzitakoa. Bertan, hauxe adierazi zion: *"Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) enpresa zuzenbide pribatuko erakundea da, eta beraz, ez da sektore publikokoa. Horrenbestez, galdera BZB enpresari egiteko eskatzen dizugu. Enpresarekin harremanetan jartzeko hauxe da webgunea: <https://bzb.es/es/contacto>"*.

Kexagileak esan zuen BZB enpresarekin harremanetan jarri zela, eta esan ziotela informazio hori ez dagoela interesdunentzako eskuragarri, baina hala ere, esan zioten eskatutako informazio hori urtero bidaltzen zaiola Garbiker enpresari.





Kexagileak Arartekora jo zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak informazio publikoa eskuratzeko eskariari emandako erantzunarekin ados ez zegoela adierazteko. Izan ere, denbora igaro arren, bakarrik Garbiker sozietate publikoak bidalitako jakinarazpen bat jaso zuen, eta horren bidez ezin izan zuen publikotzat jotzen duen informazioa eskuratu.

- Erreklamazio honi dagokion izapidea emate aldera, Arartekoak informazioa eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari, jakiteko zein izan den Sail horrek Garbiker sozietatearen bidez egin dituen jarduketak ingurumen informazioa eskuratzeko eskaerari erantzuna emateko. Zehazki jakin nahi dugu, alde batetik, BZB-ri hondakinen kudeaketari buruz eskatutako dokumentazioa administrazio publikoan dagoen, eta bestetik, zein izan den ingurumen informazio eskariari erantzuteko gauzatutako prozedura.

2020ko martxoaren 4an, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuaren informazioa jaso zuen, eta bertan, Garbikerreko zuzendari kudeatzailearen jakinarazpena zegoen atxikita, hauxe dioena hitzez hitz:

"Erreferentziazko idazkian (...)k egindako kexa dago jasota. Hala, (...)k Garbiker M.P.A.B., S.A. Sozietate publikoan ontziak sailkatzeko Bizkaiko Zabor Berzikategia (BZB) instalazioan kudeatutako hondakinen ingurumen informazioa eskatu zuen.

Bertan adierazten da Garbiker M.P. A.B., S.A. Sozietate publikoko ordezkariak esan ziola BZB-ra jo behar zuela informazio bila, bertan ezin baitzen eskuratu eskatutako informazioa, eta BZB-ek proposatu zuela (...)k informazio hori Garbiker M.P. A.B., S.A. Sozietate publikoari eskatzeko aukera izango zuela, sozietate publikoan baitzegoen beharrezko informazioa.

Horri dagokionez, Garbiker M.P. A.B., S.A., sozietate publikoak lehenengo erantzuna berresten du, 2019ko maiatzaren 28koa, eta horren kopia atxiki da, informazio hori ez baitago bertan eskuragarri.

Era berean, BZB-ek bidalitako idazkia atxiki dugu. Bertan baieztatzen da inoiz ez zela adierazi gure sozietateak (...)k eskatutako informazioa izan zezakeenik".





Foru txostenean BZB enpresak 2020ko otsailaren 18an Bizkaiko Foru Aldundiak egindako informazio eskaerari emandako erantzuna dago jasota, eta hauxe dio: *"Baieztatzen dugu Bizkaiko Zabor Berziklategia SL (BZB) enpresak, eskari horri dagokionez, ez diola (...)ri esan informazio hori urtero Garbikerrera bidaltzen denik."*

Erreklamazio hori ikusita, haren planteamendua eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Oro har, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, araututa daude espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskaerak.

Artikulu horrek, zehazki, honako eskubide hau aitortzen die herritarrei: *"Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera"*.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarria informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko araubide bereziei buruzkoa da, eta besteak beste, ingurumen informazioa horren barne dago, edonola ere, lege horren araubideek izaera osagarria dutelarik.

Hala, ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea Ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen bitartez dago araututa, eta araubide horretan jasota ez dauden gaiak Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen bitartez arautzen dira.

2. Informazioa eskuratzeko araubidea aplikatzeko eremua zehazteko, beharrezkoa da kexagileak egindako eskaria aztertzea. Eskari horren xedea, 2018an ontziak sailkatzeko Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) instalazioan kudeatutako hondakinei buruzko datuak eskuratzea da.





Uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3. artikularen arabera, ingurumen informazioa ingurumenean eragiten duten edo eragin ahal duten hondakinei buruzko dokumentazioak, hondakin horiei eragiten dieten edo eragin ahal dieten administrazio neurriei buruzko informazioak eta ingurumen legeria egikaritzeari buruzko txostenek osatzen dute.

Ondorio horietarako, beharrezkoa da hondakinei buruzko legeriaren aurreikuspen espezifikoak aipatzea. Hala, Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen 15. artikuluan jasota dago eragileek administrazio publikoei legerian adierazitako hondakin murrizketa, birziklapen eta balioztapen helburuen betetze maila egiaztatzeko gauzatutako lanen berri eman behar dietela.

Zehazki, Ontziei eta ontzi hondarrei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta egikaritzeko erregelamendua onesten duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuaren 15. artikuluan, hondakinen kudeaketan esku hartzen duten eragileek administrazio publikoei urtero ontzien pisuari eta unitate kopuruari eta ontziratutako produktuei buruz bidali beharreko informazioa zein den dago zehaztuta. Erregelamenduko 15. artikuluko c) eta e) ataletan jasota dago eragile ekonomiko arduradunek administrazioetara ontzien hondakinen eta erabilitako, birziklatutako edo balioztatutako ontzien kopuruari buruzko informazioa bidali behar dutela, edo hala badagokio, berrerabili edo deuseztatu dituzten hondakinei buruzko informazioa.

Era berean, erregelamenduan jasota dago informazioa jasotzen duen autonomia erkidegoko erakunde eskumendunak 4. eranskinean jasotako informazio guztia jasotzen duen datu basea izan behar duela ontziei eta ontzien hondakinei buruz, eta hala, autonomia erkidegoaren jarduteko inguru geografikoaren barnean, ontzien eta ontzien hondakinen kopuruak, ezaugarriak eta fluxuen garapenak jakin ahal izango direla, eta era berean, murrizte, birziklatze eta balioztapen helburuak betetzen direla kontrolatu ahal izango dela. Xedapen bietan jasota dago ontziei eta ontzien hondakinei buruzko informazioa interesatuentzako eskuragarri egongo dela, ingurumen alorreko informazio legerian xedatutakoarekin bat eginez.

Laburbilduz, kexagileak eskatutako informazioa ontziak sailkatzeko instalakuntzan urtero kudeatutako hondakin kopuruari buruzkoa da. Informazio hori, aurretik aipatutako hondakinen terminoekin eta legeriarekin bat eginez, eskumenak dituzten administrazio publikoek jaso behar dute, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean xedatutakoaren arabera. Era berean, informazio hori ingurumen informazioa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3. artikuluan xedatutakoa betez.





3. Beraz, ingurumen informazioa eskuratzearen barne dago agintaritza publikoetan dagoen informazioa, agintaritza publikoek jasotakoa edo sortutakoa edo agintaritza publiko baten izenean eta modu fisikoan pertsona juridiko edo fisiko batek duena eskuratu ahal izatea.

Bestalde, 27/2006 Legearen 10. artikuluan ingurumen informazioari buruz egindako eskariak izapidetzeko prozedura dago ezarrita. Horretarako, legeriak, ebazpenak emateko epe jakin batzuk ezarri ditu eta horiek, gehenez ere, hilabetekoak izan daitezke, erantzuna emateaz arduratzen den erregistroan eskabidea jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Salbuespen gisa, epe hori beste hilabetez luzatu ahal izango da, aldez aurretik eskatzaileari jakinarazita.

Legeriak horri buruzko zenbait berme ezartzen ditu. Ingurumen informazioko eskari bat zehaztasunik gabe egiten denean, agintaritza publikoak eskatzaileari eskaria zehazteko eskatuko dio eta ahalik eta azkarren hori egiteko laguntza eskainiko dio, gehenez ere hilabeteko epean iraungi aurretik egin dadin. Bestalde, agintaritza publikoak eskatutako informazioa ez duenean, eskaria informazio hori duen administrazioa edo agintaritzara bidali beharko du, eta horren berri emango dio eskatzaileari. Hori egitea ezinezkoa denean, eskatzaileari zuzenean esan beharko dio zein agintaritza publikora jo behar duen informazio hori eskuratzeko.

Edonola ere, ebazpena emateko gehieneko epearen barnean, derrigorrez, informazioa eskuratzeko eskariari buruz arrazoitutako ebazpena eman beharko da, eta bertan, eskatutako ingurumen informazioa eman beharko da edo eskatzaileari zehazki esan beharko zaio zergatik ez den informazio hori emango.

Informazioa emango ez baldin bada, horri buruzko jakinarazpena berariazkoa izango da, eta dagokion administrazio prozedurako legerian aurreikusitako errekurtsio prozedurari buruzko informazioa eman beharko zaio eskatzaileari.

Kasu honetan, kexagileak berariaz Bizkaiko Foru Aldundira bidalitako eskaria Garbiker enpresa publikoaren jakinarazpen hutsa da, eta bertan, bakarrik adierazten da eskatutako informazioa Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) enpresak duela.





4.-Herri-administrazioek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio prozeduran bideratu eta jasotako izapideen gaineko informazio egokia bermatu behar dute. Administrazio izapide batzuk eta erantzun bat egon badaudela bermatzea herritarrek administrazio egokirako duten eskubidearen zati da. Administrazio ona izateko herritarrek duten eskubidearen barruan, honako hauek daude: aurkeztutako idazkiak jaso izanaren agiria eskuratzea, horiek ofizioz bultzatzea eta administrazioak, azaldutako gaiei arazoiekin eta zentzuzko epean erantzuteko duen betebeharra.

Horrenbestez, ingurumen informazioa eskuratzeko eskaera horrek berekin ekarri behar du administrazio espediente bat izapidetzea, lehen aipatutako ingurumen informazioa eskuratzeko legeria kontuan hartuta.

Aipatu behar da administrazioa saiatu behar dela kexagileari laguntzen, bere eskubideak erabil ditzan, kasu honetan, eskabidea formalizatzeari dagokionez. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. f) artikulua ezartzen du interesdunek eskubidea dutela informazioa eta orientazioa eskuratzeko indarreko xedapenek egin nahi diren eskaerei ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoei buruz, kasu honetan, administrazio prozeduraren inguruko dokumentazioa eskuratzeko.

Beraz, laguntza hori ematean, kexagileak informazioa eskuratu ahal izatea erraztuko da eta bere interesak betetzeko ahalegina egingo da, eta horretarako, instalazioan hondakinen kudeaketari buruz egindako dokumentuen eta txostenen zerrenda emango zaio.

Administrazio ona izateko eskubidearen barne dago baita ere hondakinen legerian jasotakoaren arabera, eskumenak dituen administrazioak eskariekin eta eragile ekonomikoen informazio betebeharrekin bat eginez, arazoak eta ebazpenak ematea.

Erreklamazioan jasotako kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erantzuna sail horretan eskumenak dituen organoak emandako berriazko ebazpena izan beharko litzateke. Ebazpen horretan, Garbikerrek esandakoaren arabera, foru erakundeek informazio hori ez baldin badute, adierazi beharko litzateke informazio hori ez dagoela gordeta. Edonola ere, sail horrek kexagilearen eskaria informazioa duen administrazioari edo agintaritzari bidali beharko dio, eta horren berri eman beharko dio eskatzaileari. Hori egitea ezinezkoa denean, eskatzaileari zuzenean esan beharko dio zein agintaritzak publikora jo behar duen informazio hori eskuratzeko.





Era berean, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 2 g) artikuluan jasotako aurreikuspen gehigarria aipatu behar da. Bertan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aurreikuspenen aplikaziozko eremu subjektiboaren barne jasota daude zenbait merkataritza sozietate, hain zuzen ere, sozietate horien kapital sozialean zuzenean edo zeharka erakunde publikoek % 50 baino gehiagoan parte hartzen dutenean. Erakunde honek duen informazioaren arabera, Bizkaiko Zabor Berziklatzea (BZB) enpresak Garbiker sozietate publikoaren eta enpresa pribatu baten partaidetza du.

5. Azkenik, adierazi beharra dago informazioa eskuratzea baimentzen edo ukatzen duen ebazpenak Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 20. eta 88. artikuluetan jasotako aurreikuspenak bete behar dituela. Gauzak horrela, ebazpenean erabakia arrazoituko da eta horren aurka jar daitezkeen errekurtsioak adieraziko dira.

Gainera, administrazio ebazpen horretan gogorarazi behar da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordean erreklamazio bat jartzeko aukera ezarri duela. Erreklamazio hori, nahi izanez gero, informazioa eskuratzeari lotutako berriazko edo ustezko ebazpen ororen aurka jarriko da, administrazio auzien bidetik aurkaratu aurretik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, bereziki aipatu behar dira Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua eta bertan, informazioa eskuratzeko aurreikusita dagoen prozedura espezifikoak. Hala, arau horren 24.5. artikulua haxe zehazten du:

“Edozein ebazpen espresuren edo presuntziozko ukapenaren aurrean, aukerako berraztertze-errekurtsioa jartzeaz eta, hala badagokio, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeaz gainera, hilabeteko epean errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari (foru arau honen IV. tituluaren arautzen da batzorde hori).”

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:





Gomendioa:

Arartekoak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari gomendatzen dio berehala eta berriaz ebatz dezala kexagileak egindako ingurumen informazioa jasotzeko eskaria. Hori guztia 26/2007 Legearen 10. artikuluan, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikuluan eta Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erantzunaren bitartez, ebatzi egin beharko da informazioa administrazio publiko horretan dagoen edo ez. Eskatutako informazioa administrazio publiko horretan ez baldin badago, kexagilearen eskaria informazio hori duen administraziora, agintaritza publikora edo erakunde publikoen partaidetza nagusia duen merkataritza sozietatera bidali beharko da, apirilaren 30eko 782/1998 Dekretuaren 15. artikuluan jasota dauden betebeharrekin bat eginez. Hori egitea ezinezkoa denean, ebazpena ematean eskaria ezetsi beharko da, albo batera utzi gabe kexagileari laguntza eskaini ahal izatea eskatutako informazioa eskuratzeko modu egokiena zein den adieraziz.

Era berean, ezeztapen ebazpena baldin bada, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan araututako gardentasun alorreko Erreklamazio Batzordean erreklamazioa jartzeko aukeraren eta administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu aurretik, administrazio errekurtsioak jartzeko aukeren berri eman beharko da.

